dagokion Lurralde Ordezkaritzari bidaliko zaizkio, horretarako ezarriko den epearen barruan.

Kudeaketa-kontuak bidaltzea ezinbesteko betekizuna izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dagozkien ordainketa-aginduak eman ditzan».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko apirilaren 5ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

sentación se remitirán a la correspondiente Delegación Territorial de Educación, en el plazo que se determine al efecto.

El envío de las cuentas de gestión será requisito imprescindible para que puedan efectuarse los siguientes libramientos desde el Departamento de Educación, Universidades e Investigación».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de abril de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA ETA IKERKETA SAILA KULTURA SAILA

### 1833

66/2005 DEKRETUA, apirilaren 5ekoa, Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntz eskakizunak sortu eta arautzen dituena.

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoak, V. tituluan arautu du irakaskuntzako funtzio publikoa osatzen duten langileen hizkuntz normalizazioa. Zehazki, 49. artikuluak xedatu du euskal hezkuntza-administrazioaren zerbitzuko irakaskuntzako lanpostuek dagokien hizkuntz eskakizuna izango dutela. Eta 50. eta 51. artikuluen arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio hizkuntz eskakizunak eta horiek lanpostuei aplikatzeko irizpideak finkatzea, eta euskal hezkuntza-administrazioaren irakaskuntza-lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun data esleitzea. Lege hori garatuz, zenbait dekretu eman ziren, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatu zituztenak, honako hauek aintzat hartuta: irakasle-postuak, ikuskaritzako lanpostuak eta Ikerketarako eta Irakaskuntzaren Laguntza Zerbitzuetako lanpostuak.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 1833

DECRETO 66/2005, de 5 de abril, por el que se crean y regulan los perfiles lingüísticos del personal laboral educativo no docente de Educación Especial.

La Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, regula en el Título V la normalización lingüística del personal que integra la función pública docente. Concretamente, el artículo 49 dispone que los puestos de trabajo docentes al servicio de la Administración educativa vasca tendrán asignado su correspondiente perfil lingüístico. Y, de acuerdo con los artículos 50 y 51, corresponde al Gobierno Vasco determinar los perfiles lingüísticos, los criterios para su aplicación a los distintos puestos de trabajo, la asignación del perfil lingüístico a cada uno de los puestos docentes de la Administración educativa vasca, así como su fecha de preceptividad. En desarrollo de la citada Ley se dictaron diferentes decretos por los que se establecen criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes, de Inspección y de los servicios de Investigación y Apoyo a la Docencia.

Beste alde batetik, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, hizkuntz normalizazioaz dihardu V. tituluan. Bere 97. artikuluan xedatu duenez, lanpostuetako bakoitzak bere hizkuntz eskakizuna jarria izango du, eta Eusko Jaurlaritzak zehaztuko ditu hizkuntz eskakizunok, baita horiek lanpostuei aplikatzeko irizpideak ere. Lege hori garatzera etorri zen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko dena. Dekretu horren lehen xedapen gehigarriak dekretuaren aplikaziotik kanpo utzi du irakaskuntza-sektorea, honako hau dio eta: Hezkuntzari, Osasunari eta Ertzaintzari dagozkion arloak nolakoak diren eta beren eginkizunetan dituzten berezitasunak aintzakotzat hartuta, hizkuntz normalkuntza-prozesua arautzeko arau bereziak izango dira arlo horietan.

Egia esan, Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleei, irakasle ez diren neurrian, ez zaie aplikatzen Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko Legea, ezta, arrazoi berberarengatik, Lege hori garatzera etorri diren dekretuek sortu dituzten hizkuntz eskakizunak ere. Hala ere, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea kolektibo horri aplika dakiokeen arren, 86/1997 Dekretuak arautu dituen hizkuntz eskakizunak ere ezin zaizkie ezarri, dekretu horren lehen xedapen gehigarriak dioenaren ildotik.

Gainera, kontuan izan behar da epaileen zenbait erabakik, alde batetik, ondokoa deklaratu dutela: HBLEM hizkuntz ziurtagiria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1996ko azaroaren 14ko Aginduz arautua, ez dela hizkuntz eskakizuna, Eusko Jaurlaritzak sortu ez duelako; eta bestetik, zati batean deuseztatu dutela maiatzaren 21eko 110/2002 Dekretua, Hezkuntza Bereziko lan-legepeko langileen hizkuntz eskakizunak zehazteko irizpideak ezarri eta ordura arte langile horiei eskatutako hizkuntz gaitasunak arautzen zituena. Epaileen erabaki horiek, hala ere, bide ematen dute 1. hizkuntz eskakizuna exijitzeko Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleei; beraz, irakasleen 1. hizkuntz eskakizunari edo baliokideari dagokion euskararen jakite-maila ezarri zaie langile horiei, hizkuntz gaitasun apalagoa eskatzen duten lanpostuetarako. Beste alde batetik, HBLEM ziurtagiria Hezkuntzako Langileen Euskara Agiriarekin (HLEA) homologatzea arautu da, bietan jasotako hizkuntz gaitasunak baliokideak baitira, baita maiatzaren 21eko 110/2002 Dekretua derogatu ere.

Ondorioz, lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen kolektiboari ezar dakizkiokeen hizkuntz eskakizunak arautu behar dira, eta hutsune hori bete nahi du honako Dekretu honek.

Por otra parte, la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca se ocupa de la normalización lingüística en el Título V. Así, el artículo 97 dispone que los puestos de trabajo deben tener asignado su correspondiente perfil lingüístico, correspondiendo al Gobierno Vasco determinar los perfiles lingüísticos y los criterios para su aplicación a los distintos puestos de trabajo. En desarrollo de esta Ley se dictó el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuya disposición adicional primera viene a excluir su aplicación al sector docente, cuando afirma que dada la naturaleza y peculiaridades funcionales de los sectores docente, sanitario y Ertzaintza, éstos se regirán por las normas específicas que regulen el proceso de normalización lingüística en dichos sectores.

Ciertamente, al personal laboral educativo no docente de Educación Especial, en la medida que no es personal docente, no le resulta de aplicación la Ley de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ni, por la misma razón, los perfiles lingüísticos creados por los decretos de desarrollo de dicha Ley. No obstante, y aunque la Ley de Función Pública Vasca le es aplicable a dicho colectivo, tampoco los perfiles lingüísticos regulados en el Decreto 86/1997 les son exigibles en virtud de lo dispuesto en su disposición adicional primera.

Además, hay que tener en cuenta que diversos pronunciamientos jurisprudenciales han venido, de una parte, a declarar que el certificado lingüístico Hblem, regulado por la Orden de 14 de noviembre de 1996, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación no constituye un perfil lingüístico al no haber sido creado por el Gobierno Vasco y, de otra, a anular parcialmente el Decreto 110/2002, de 21 de mayo, por el que se establecen criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos de los puestos de personal laboral de Educación Especial, que hasta ese momento regulaban las competencias lingüísticas requeridas a dicho personal. Sin embargo, dichos pronunciamientos jurisprudenciales posibilitan la exigencia a este personal educativo laboral no docente de Educación Especial del Perfil Lingüístico 1, por lo que se establece para este personal un nivel de conocimiento de euskera correspondiente al perfil lingüístico 1 del personal docente o equivalente para aquellos puestos de trabajo que exigen un nivel de competencia lingüística inferior. Por otro lado, se regula también la homologación del HBLEM con el Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (Hlea), dado que las competencias lingüísticas contenidas en ambos son equivalentes, así como se deroga el Decreto 110/2002, de 21 de mayo.

En consecuencia, se hace preciso regular los perfiles lingüísticos exigibles al colectivo del personal laboral educativo no docente, pretensión ésta que constituye el objeto de este Decreto.

Azkenik, Dekretu honek arautu egiten ditu Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleei exijitu dakizkiekeen hizkuntz eskakizunak, irakasleei aplika dakizkiekeen hizkuntz eskakizunen ildo beretik, ikasleen eskubideak begiratze aldera, ikasleak dira-eta irakaskuntzaren zein hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzaren azken hartzaile. Hartara, ondoko legeetan jasotako agindua betetzen da: Euskararen Erabilera Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko Legea.

Horiek horrela, Euskadiko Eskola Kontseilua eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa entzunda, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Kultura sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko apirilaren 5ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Dekretu honen xedea da Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntz eskakizunak sortu eta arautzea.

*2. artikulua.–* Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA) izeneko hizkuntz eskakizuna da Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleei aplikatzen zaien hizkuntz eskakizuna. Horretaz gain, euskara jakite-maila apalagoa ezarri da lanpostu jakin batzuetarako, Hezkuntzako 1. hizkuntz eskakizuna (HE1) edo baliokidea eskatuko baita horietarako.

*3. artikulua.–* 47/1993 Dekretuan hezkuntza-administrazioko irakasleentzako ezartzen diren HE1 eta HE2 eskakizunen tarte-bitarteko gaitasun-maila ziurtatzen du HLEAk. Bere lanbidea zailtasun berezirik gabe euskaraz betetzeko gai izan behar du HLEAdunak: jatorrizko hiztunaren pareko edo hurbileko gaitasuna izan behar du hitzez, eta oinarrizko trebetasun-maila ere izan beharko du idatziz. Hots, ondoko hauek euskaraz egiteko gai izan behar du HLEAdunak:

– Ikasleen, irakasleen, gurasoen eta gainerako eskola-agenteen ahozko euskara ulertzea, baita ikasleen beharrekin lotutako eskolako materiala ulertzea ere (filmak, bideoak, zintak, irratsaioak, besteak beste).

– Bere kargu dituen ikasleen beharretarako diren argitalpenak, programa ofizialak, kontsulta-liburuak, artikuluak etab. ulertzea.

– Ikasleekin, gurasoekin, irakasleekin eta hezkuntzako beste langileekin erraz eta zuzen mintzatzea laguntza- eta hezkuntza-zereginaz eta ikasleen garapen pertsonalaz eta eskolakoaz.

Por último, el Decreto regula los perfiles lingüísticos exigibles al personal educativo no docente de Educación Especial de forma pareja a los perfiles lingüísticos aplicables al personal docente en aras a salvaguardar el derecho de los alumnos, destinatarios últimos de la acción propiamente docente como de apoyo para los alumnos/as con necesidades educativas especiales, cumpliendo de esta manera el mandato recogido en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, en la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca y en la propia Ley de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, oídos el Consejo Escolar de Euskadi y la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación y de la Consejera de Cultura, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 5 de abril de 2005,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Es objeto del presente Decreto la creación y regulación de los perfiles lingüísticos del personal laboral educativo no docente de Educación Especial.

*Artículo 2.–* El perfil lingüístico de aplicación al personal laboral educativo no docente de Educación Especial es el perfil denominado Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (Hlea). Adicionalmente se establece un nivel inferior de conocimiento de euskera para ciertas plazas, para las cuales se exigirá el Perfil Lingüístico 1 (PL 1) de Educación, o equivalente.

*Artículo 3.–* El perfil Hlea se configura como un nivel intermedio entre los perfiles PL1 y PL2 recogidos en el Decreto 47/1993, para el personal docente al servicio de la Administración Educativa. Este perfil garantizará que el poseedor/a del mismo sea capaz de desempeñar su trabajo sin especiales dificultades en euskera. Es decir, su competencia oral será la de un hablante de lengua materna o próxima a ésta, y acreditará las habilidades escritas básicas. Más concretamente, será capaz de:

– Comprender el euskera oral de alumnos/as, profesores/as, padres, madres y demás agentes escolares, así como del material escolar (películas, vídeos, cintas, programas de radio, entre otros) relacionado con las necesidades de los alumnos/as.

– Comprender el euskera escrito de publicaciones, programas oficiales, libros de consulta, artículos, etc. necesarios para atender las necesidades de los alumnos/as que tiene encomendados.

– Expresarse oralmente con fluidez y corrección con alumnos/as, padres y madres, profesores/as y otros profesionales de la educación sobre temas relacionados con su labor asistencial-educativa y con el desarrollo personal y educativo de los alumnos/as.

– Ikasleekin euskaraz aritzea eskolako gaiei buruz: egokitzapen- edo mugikortasun-arazoak, beste ikasle batzuekikoak eta familia-ingurukoak, besteak beste.

– Txostenak euskaraz idaztea, bai ikasleei eta bai lanean ari diren programei buruz.

*4. artikulua.*– HLEA hizkuntz eskakizuna ondokoei zuzendua dago: Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen lanpostuei, hainbat kategoriatan banatuta baitaude (Hezkuntza-laguntzarako Espezialistak, Materialaren Transkribatzaile eta Egokitzaileak, Fisioterapeutak, Gizarte-langileak eta Lan-terapeutak)

*5. artikulua.*– Ikasleak euskaraz artatzea eskatzen duten lanpostuek indarrean izango dute HLEA. Aldiz, batez ere gaztelaniaz lan egitea eskatzen duten lanpostuak HE1ekoak izango dira.

*6. artikulua.*– Hizkuntz eskakizun berri hau egiaztatzeari dagokionez, hezkuntza-administrazioak finkatuko du, edukiz eta formaz, beharrezko gaitasun-maila neurtzeko proba. Horretarako eratzen diren epaimahaietan Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat ere izango da. Bestalde, alor horretako langileak HLEA lortu ahal izateko bidean jarriko ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Irale programaren bidez.

*7. artikulua.*– Hezkuntzako HE1 egiaztatzeko finkatutako derrigortasuneko araubide orokorra betetzetik salbuetsita egongo dira honako hauek:

a) Plangintzako aldi bakoitzaren hasieran 45 urtetik gora dituztenak, doakionarekin ados jarri ondoren.

b) Hizkuntzarik ikasteko gai ez direnak: ezintasun horrek ageria eta kontrastatua izan behar du.

c) Helduei hizkuntza irakasteko gaur egunean indarrean dauden programen bidez, beren urritasun fisikoa edo psikikoa dela medio, euskara ezin ikasi duten edota eragozpen larria duten pertsonak.

Salbuetsitako langileek, gerora arautuko diren deialdien bidez, lekualdaketa lehiaketetan parte hartu ahal izango dute, baita Hezkuntzako HE1 ezarrita duten lanpostuak bete ere, non eta berehalako derrigortasun eguna jarri zaien lanpostuak ez diren.

Inola ere ezingo dira hizkuntz eskakizuna betetzetik salbuetsi HLEA duten lanpostuetan dihardutenak, horren edukiak hezkuntza-funtzioa euskaraz garatzeko behar adinbateko hizkuntz gaitasuna eskatzen baitu.

– Comunicarse en euskera con los alumnos/as sobre temas relacionados con la actividad escolar: problemas de adaptación, movilidad, problemas con otros alumnos/as y ambiente familiar, entre otros.

– Elaborar en euskera informes sobre los alumnos y sobre los programas en los que ha de desarrollar su labor.

*Artículo 4.*– El perfil Hlea está dirigido a los puestos de personal laboral educativo no docente de Educación Especial, colectivo conformado por diferentes categorías (Especialistas de Apoyo Educativo, Transcriptores y Adaptadores de material, Fisioterapeutas, Trabajadores Sociales y Terapeutas Ocupacionales).

*Artículo 5.*– El perfil lingüístico Hlea se exigirá en aquellos puestos de trabajo que requieran atender a los y las alumnos/as en euskera, mientras que los puestos de trabajo cuya actividad se desarrolle básicamente en castellano tendrán asignado el PL1.

*Artículo 6.*– Para la acreditación del nuevo perfil lingüístico, la Administración Educativa determinará el contenido y forma de las pruebas destinadas a la evaluación del conocimiento de euskera necesario. Un representante del Instituto Vasco de Administración Pública formará parte de los Tribunales que se constituyan al efecto. De igual forma, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación dispondrá, a través del programa Irale, los medios tendentes a posibilitar la obtención del Hlea.

*Artículo 7.*– Estarán exentos del cumplimiento del régimen general de preceptividad que para la acreditación del PL 1 de Educación se establece:

a) Quienes superen la edad de 45 años al comienzo de cada etapa de planificación, previa conformidad del interesado.

b) Aquellas personas en las que concurra carencia manifiesta y contrastada de las destrezas aptitudinales necesarias para el proceso de aprendizaje del idioma.

c) Las personas afectadas de minusvalías físicas o psíquicas que imposibiliten o dificulten el aprendizaje del euskera mediante los programas actualmente vigentes de formación y capacitación lingüística de adultos.

El personal declarado exento podrá participar a través de las convocatorias que con posterioridad se regulen en los concursos de traslados y ocupar los puestos de trabajo que tengan asignado un PL1 de Educación, salvo aquellos puestos de trabajo para los que se establezca una fecha de preceptividad con carácter inmediato.

En ningún caso se podrá eximir del cumplimiento del perfil lingüístico a quienes ocupen puestos de trabajo que tengan asignado el perfil Hlea, cuyo contenido exige la competencia idiomática necesaria para desarrollar la función educativa en euskera.

*8. artikulua.–* HE1 lortu behar izatetik inor salbuetsi litekeen edo ez finkatzeko, honako egiaztapenak egingo dira:

a) Zazpigarren artikuluko b) idatz-zatian jasotako salbuespenari dagokionez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuak proposatu eta Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak egindako ziurtagiria beharko da; Erakunde horrek egingo ditu alegatutako gabeziak egiaztatzeko bidezko diren frogak.

b) Urritasun fisikoak edo psikikoak, aldiz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzako Medikuntza Atalak emandako ziurtagiriz egiaztatuko dira.

Horrela egiaztatu ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak erroldan jasota utziko du gertatu den salbuespena.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean sartu baino lehen luzatutako hizkuntz ziurtagiriak homologatu eta baliokidetzeari dagokienez, HBLEM (Hezkuntza Bereziko Laguntzaileen Euskara Maila) ziurtagiria duten pertsonek HLEAduntzat hartuko dira. HLEA baino goragoko euskaraziurtagiria dutenek, hala nola Hezkuntzako HE2dunek, EGAdunek eta ziurtagiri baliokidedunek, ez dute HLEA lortu beharko, maila hori eskatzen duten lanpostuak betetzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen dira ondoko arauak:

– Agindua, 1996ko azaroaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Hezkuntza Bereziko Laguntzaileen Euskara Maila (HBLEM) izeneko ziurtagiria sortzen duena.

– 110/2002 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Hezkuntza Bereziko lan-kontratuko langileen hizkuntza eskakizunak zehazteko irizpideak ezartzen dituena.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Dekretu honetan ezarritakoa burutzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak agintzeko ahalmena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari.

*Artículo 8.–* La acreditación de las circunstancias que dan lugar a la exención en el cumplimiento de la preceptividad del PL1 se verificará de la siguiente manera:

a) En lo relativo a la exención recogida en el artículo 7 apartado b), será precisa certificación, a propuesta del Servicio de Euskera del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, del Instituto Vasco de Administración Pública, el cual previamente realizará las pruebas pertinentes en las que se acrediten las carencias alegadas.

b) En cuanto a las minusvalías físicas o psíquicas serán acreditadas mediante certificación extendida por la unidad administrativa médica de la Dirección de Gestión de Personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Una vez así acreditadas la Dirección de Gestión de Personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, tomará razón de la exención producida.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

A efectos de homologación y equiparación de certificaciones lingüísticas expedidas con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto se establece que los poseedores/as del certificado Hblem tendrán acreditado el perfil Hlea. Los poseedores/as de acreditaciones de euskera superiores al Hlea, tales como el PL2 de Educación, Ega y certificados equivalentes, no tendrán necesidad de acreditar el Hlea para ocupar plazas en que éste sea exigido.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas las siguientes normas:

– Orden de 14 de noviembre de 1996, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se crea el certificado HBLEM (Hezkuntza Bereziko Laguntzaileen Euskara Maila) para los auxiliares de Educación Especial.

– Decreto 110/2002, de 21 de mayo, por el que se establecen criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos de los puestos de personal laboral de Educación Especial.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** Se faculta a la Consejera de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para la ejecución y desarrollo de lo establecido en el presente Decreto.

*Bigarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko apirilaren 5ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 1834

EBAZPENA, 2005eko martxoaren 23koa, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena, izan ere horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegartzeko hautespen probetarako onartutakoen eta lehiaketaz kanpo utzitakoen behin-behineko zerrenda onartzen da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2005eko otsailaren 3ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegartzeko hautespen probetarako deia egin zen. Agindu hori 2005eko otsailaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Aipatutako deialdiaren 4. oinarriak 1. paragrafoan ezartzen duenaren arabera, Langileriaren Kudeaketako Zuzendariak Ebazpena emango du onartutakoen eta lehiaketaz kanpo utzitakoen behin-behineko zerrenda onesteko, eta ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara emango da.

Horregatik guztiarengatik,

EBATZI DUT:

*Lehenengo artikulua.*– Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegartzeko hautespen probetarako onartutakoen eta lehiaketaz kanpo utzitakoen behin-behineko zerrenda onartzea, baztertzearen zergatiak adieraziz.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de abril de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 1834

RESOLUCIÓN de 23 de marzo de 2005, de la Directora de Gestión de Personal, por la que se aprueba la relación provisional de aspirantes admitidos y excluidos al proceso selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Profesores de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma Vasca.

Mediante Orden de 3 de febrero de 2005, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, que se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco de 23 de febrero de 2005, se convocó proceso selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Profesores de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma Vasca.

La base 4 de la referida convocatoria establecía, en su apartado 1, que la Directora de Gestión de Personal dictará resolución declarando aprobada la lista provisional de admitidos y excluidos y que esta resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por todo ello,

RESUELVO:

*Artículo primero.*– Aprobar la lista provisional de aspirantes admitidos y excluidos para tomar parte en el proceso selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Profesores de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma Vasca, con expresión, en su caso, del motivo de exclusión.